

FITNESS GELA ERABILTZEKO ARAUAK

83. artikulua.—Deskribapena

Fitness egitera bideratutako instalazioak dira.

84. artikulua.—Sarrera

Fitness gelan sartzeko harpidedun txartela aurkeztuko da, harpidedun denak, eta aurretik kasu bakoitzean dagokion alokairu-tasa ordainduko da sarrera-kontrolan.

85. artikulua.—Araudi berezia

a) Ezinbestekoa izango da fitness gelan kirol oinetakoak eta arropa jantzita sartzea; horretaz gain, toaila bat eraman beharko da, erabiltzailearen gorputzak tapizatua ukitzea eskatzen duen edozein ariketatan erabiltzeko.

b) Erabiltzaileak zein zigorretan eror daitezkeen alde batera utzita, fitness gelako material eta ekipamenduen erabilera desegokia arduradunak zigortzeko arrazoi izango da, gutxienez eragindako kalteak ordaintzeko eskatuz.